

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarreak

ON ANTONIO OKENDO-KOARI.



OKENDO-RI.

Jakiñagatik zure oroitzak
asko duela eskatzen,
jakiñagatik famaren otsak
ori duela banatzen,
ala dalarik, nik uskeri au,
Okendo, dizut eskaintzen.
Euskal-erriak zu goititua
zaituelako lajatzten,
euskaldun eta dierritarrak
pozturik dira laztantzen,
onra aundiko zor donakia.
gaur zaizulako pagatzen.

V. Iraola.

OKENDO-RI.

Gizaldirikan ez da izango,
Aitorren erri chikitik,
Ume azkar bat itsasoz edo
Idorrez sortu ez danik:
Baña, ainbeste jazar izan ta
Inork garaitu gabarik,
Mugagabeko itsas naasian
Ez da izandu gizonik,
Donostiako On Antonio
Okendokoa besterik.

Otaegi-ko Klaudio.

NERE USTE BAT.

Ez dakit nik, euskaldun-lur onek zergatik ez dituen argitaratzen geyago, bere seme umanten aomenak beste erri aundi oyetan bezela. ¿Aztuta ote dakazki? ¡Ez, inola ere! Bañan ama batek, maite izan arren bere semiak, ez ditu adiarazi bear beñere oen aunditasunak.

Oroitzik onena orlakoentzat, beren doayak,

Francisco Lopez Alen.